

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Inauteri giroko asteburua Andoainen eta Urnietan

Andoainen ostegunean hasi eta igandera bitarte luzatuko dira Inauteriak. Urnietan ospakizun nagusia larunbatean izango da. / 8-9



EGAPE

Urnietarren ikastola publikoa

Aurrematrikulazioa
Otsailaren 7tik 23ra

HH-LH egape@egape.eus 943009275

DBH egapebhi@egape.eus 943899425



www.egape.eus



baikara





San Juan plazatik abiatu zen kantu-erronda. AIURRI

Errima berriak, betiko doinuetan

Urtero legez, kalera atera ziren otsailaren 4an urnietarrak, Santa Ageda bezperan kantari aritzeko, Kantazaun elkartearen eskutik. Bildutako dirua Aiurri astekariari bideratuko diote

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Eztarriz sano dabiltzala erakutsi zuten urnietarrek joan den igande goizean, Kantazaun elkartearen ekimenez. Oles eginez eta gogoz kantatuz, kalera atera ziren herritarrek, Santa Ageda egunaren bezperan. Goizeko 11:30ean bildu ziren San Juan plazan, eta, eguerdiko 14:00ak bitartean, herriari itzulia eman zioten, zenbait plazatan geldialdiak eginez.

“Zorion etxe hontako denoi, oles egitera gatoz...”, ekin zioten hizorduari. Hala, betiko doinuei letra berriak batu dizkiete. Esate baterako, oraindik, orratzak mugitu gabe dituen elizako dorreko erlojuak bere txokoa izan zuen makil-kolpeen artean. Ohiturak aginduta, geldialdia egin zuten Zaldundegi plazan, eta azer nolakoa gainera! Jatetxearen eskutik, hamaiketakoaz gozatze-ko aukera izan zuten kantariak.



Urnietako koplak, paperean. AIURRI

Ondoren, Zaldundengin bertan sartu ziren, indarberrituta, esker oneko koplekin. Izan ere, atek uztailan itxiko dituela iragarri du orain gutxi horrenbeste hamaikadaz herritarren topaleku izan den jatetxeak.

ELIZ DORREKO ERLOJUA

Jarraiz dezadan ordena hortan saiatzen nor dena alkatearen ordezkari Koldori eskatzen diyoit baimena

Sarri gatoz bertaraino herriko udaleraino hemen hartzeko hobeak daude guri emateko baino

Jarrira erreparoa eleiz aman anparoa eleiz dorreko erleju xarrak jarraitzen dula paroa

Zezen-plazetan mulillak geldi erloju manillak nere galdera ez konpontzeko zer egin zuen Munillak?

AMAIA AGIRRE, GOGOAN

Koplak eta bertsoak uztartu zituzten igandeko saioan. Amaia Agirre Gonzalez ere abestu zion Fermin Argiñarenak, orain urte bete mendian hil zen herriakidea gogoan hartzeko asmoz: *Aipatutzea zen nahia mendizale ta alaia Santa eskeko talde osoak gogoan zaitu Amaia.*

"Hain urri"

Joan den urtearen amaieran Urnietako Udaleko gobernu taldearen partetik astekariak jasotako murrizketa hizpide izan zuten igande goizeko kalejiran. Hala, “Hain urri” abestiarekin elkartasuna erakutsi zioten tokiko komunikabideari, egoera gaitzestearekin batera:

"Hain urri" koplak
Adarran bera tantaka zatoz berri freskoen iturri herria zure egarri baina utzi zaituzte hain urri.

Eskera gatoz taldean urritz makilak aldean gure burua ikusi asmoz. berriz zure azalean.

Neguko egun motzetan otsaileko izotzetan zure eskela jarri nahi dute egunkari arrotzetan.

Adarran bera tantaka zatoz berri freskoen iturri herria zure egarri baina utzi zaituzte hain urri.

Onddon emana bi pausu. Onddin ikusi al nauzu? Gero kalean zer gertatzen den zuk kontatuko didazu.

Aballarri ta Adarra Pardakin ilunabarra



Aiurriren logoa maingidarean. AIURRI

postaria noiz etorriko den zain dago baserritarra.

Adarran bera tantaka zatoz berri freskoen iturri herria zure egarri baina utzi zaituzte hain urri.

Pago azpian pakea, kalean borondatea, baina zergatik dago itxita udaletzeko atea?

Urtuko da mendi gaina udaberriko usaina kukua berriz etorriko da xoxik ez daukagu baina.

Adarran bera tantaka doan berri freskoen iturri gure atea zuretzat beti zabalik dago Aiurri!



Zaldundegi tabernaren barrualdean kantari aritu zen taldea. AIURRI

Zaldundegiri eskertza eta agurra

Historia bizia da Urnietan Zaldundegi taberna-jatetxea. Herriaren eta, batez ere, Idiazabal kalearen eraldaketaren lekuko izan da belaunaldiz belaunaldi iraun duen negozioa. Udan atekak itxiko dituela-eta, Kantazaun taldekoek eskertza adierazi zieten

Erredakzioa URNIETA

Uztailean, jatetxeko atekak itxiko ditu Zaldundegik. Hala, tabernan sartu eta, omenaldi gisa, Santa Ageda bezperako melodiekin, zenbait bertso eskaini zizkieten.

*Otsailak laugarrena
kantuz herriyan barrera
jakin nahi degu ia zer moduz
bizi zeaten aurrena*

*Zabalik beti atekak
estimaten du jendeak
munduan gutxi gelditzen dira
holako etxeako andreak*

*Axun, Pepi, Mari Carmen
zer ixtori dagon hemen
ateak ixten badituzute
herrian kalte nabarmen*

*Berri txarrak baidabiltz
azken momentutan gabiltz
nahiago nuke gaurko bixita
azkenengoa ez balitz.*

Hunkitu txalotu zituzten Zaldundegiko lagunek, bertsoak.

Itxieraren albisteak zeresana eman du, bai. Idiazabal kaleko jatetxea aski ezaguna baita Urnietan, bai eta inguruko herrietan ere. Maila goreneko sukaldaritza eskaini dute, betidanik, tokikotasuna ardatz hartuta. Udan, betiko itxiko dituzte atekak,

tradizio handiko negozioari amaiera emanaz. Belaunaldiz belaunaldi iritsi da XXI. mendearaino. Datozen hilabeteetan ez zaie lanik faltako Zaldundegikoei, bideari amaiera eman aurretik, bertan bazkaldu edo afaldu nahiko baitute askok.



Kantu taldeko kideak, Zaldundegiko kanpoaldean, igande goizean. AIURRI



Zaldundegi jatetxeko ahizpak, 2019ko omenaldi-ekitaldian. AIURRI

Urnietako Udalaren omenaldia jaso zuten 2019ko Sanmieletan

Jatetxe modura, ibilbide oparoa osatu dute Mari Karmen, Pepi eta Axun ahizpek. Urnietako Udalak omenaldia eskaini zien 2019ko San Migel egunean, jendez beteta zegoen plazan. Dantzariak, haur danborrada, txaranga eta txistulariak... Herri omenaldia izan zen eta Udal ordezkariak osoak parte hartu zuten ekitaldian. Lana bizitzaren erdigunean zegoen garaian hazi eta hezi ziren Zaldundegi jatetxeko hiru ahizpak. Bide beretik jarraitu zuten, eta orduko hartan ere bizitza jatetxeko lanaren martxan antolatu zuten: omenaldia jaso ondoren, jatetxera itzuli ziren. Lanera. Mikel Pagola orduko alkateak maisuki gidatu zuen ekitaldia, eta omenduei hitz goxoak eskaini zizkien. Eguneko protagonistek esker onez eta pozarren hartu zuten omenaldia, eta hitz gutxirekin barruan sentitzen zuten poz handi hori adierazi zuten.

Omenaldia borobiltzeko, Aitor Mendiluzeren bertsoaldia bikaina izan zen. Egi borobilak bildu baitzituen, hiru bertsoetan: *Urteak joan eta etorri, Zaldundegik bertan eutsi. Hango mokadu ta hango trago, tratu goxo eta guzti. Denborarekin bihurtu dena erreferentzi nagusi, Zaldundegitik pasa ez denak ez du Urnieta ikusi. Berdin zaio zer atera mahaira, edozer bota basoan. Hemengo zeinek ez ote degu zeozer ona jaso han. Argi erakutsi diguzue, bai, zuen lanaldi osoan, sukalde baten goxotasuna ez dago gazi gozoan. Pepita, Axun ta Mari Karmen hirurentzat muxu bana. Eta eskerron erakutsi hau zuen herriak emana. Bi zatitako omenaldi bat da proposatzen dedana: Emaiezue gaur lore sorta, ta urte osoan lana.*



Urnietako
udala



Tere Santana (Podemos), Andoni Alvarez alkatea, Pepe Iparragirre (Podemos) eta Marta Lasa (EH Bildu). AIURRI

Aurrekontua onartzeko akordioa lortu dute

Adostasunera iritsi dira EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiak, 2024ko Udal aurrekontua onartzeko. Bien botoen baturarekin gehiengo osoa onartuta dago. Orotara, 27 milioitik gorako aurrekontua izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Tere Santana eta Pepe Iparragirre Elkarrekin Podemoseko ordezkariak EH Bildu Udal taldeko Andoni Alvarez eta Marta Lasa buruzagiekin batera agertu ziren hedabideen aurrean, asteazken goizean. Zehazki, Udal aurrekontua onartzeko akordioa badutela iragartzeko. Udal administrazioan aurrekontuaren

tramitazioa eta onarpena garrantzi handikoa da, bereziki egitasmo berriei eutsi nahi bazaie.

Sei erronka handi

- **Gizarte babesa eta zaintza indartzea.** Gizarte Zerbitzuen alorra indartzea erabaki dute. Besteak beste, Zaintza plana eta etxeko etxeko zerbitzuaren azterketa

integrala egingo dute. Etxebizitza-planean sakonduko dute, Andoain tenkatutako gune dela izendatzetik hasita.

- **Tokiko ekonomia sendotzea.** Urte osora zabaldu nahi dituzte tokiko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumitzearen aldeko kanpainak.
- **Trantsizio ekologikoan jauzi bat ematea.** Martxan dauden iker-

keten ondorioen zain dira, eta, bitartean, herri-baratzeak egokitzeko prozesua aurki jarriko dute abian.

- **Herria berritzeko proiektuak garrantzea.** Udal Liburutegia berritzea eta Allurralde Kirolegiaren handitzea aurreikusten dute. Trafikoari lotuta, Bazkardoko lotuneari dagokionez, Espainiako Gobernutik jasotako ia bostehun mila euroekin alternatiba lantzen hasiko dira hurrengo hilabeteetan.
- **Kultura eta euskararen hedatzea.** Eskola publikoaren indartzea. Kultur eragileekin hausnarketa prozesua abiatu zen udazkenean. Eskola Kirola berri eta bateratu bat martxan jarzea adostu nahi dute herriko ikastetxeekin batera. Euskal Eskola Publikoa indartzeko, bestalde, elkarlanerako ildoak zabalduko dituztela adostu dute.
- **Zerbitzu publikoak indartzea.** Eta horrekin batera lanpostuak egonkortu eta lan-baldintzak hobetzeko egonkortasun-prozesua martxan jarri nahi dute.

Aurrekontu-proposamena 27 milioi eurotik gorakoa da. Okerrik ezean, otsailean bertan onarpena emango diote beren begi deituko duten ez ohiko batzaraldian. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek gehiengo osoa badute. Ikusi behar zein den PSE-EEren eta EAJ-PNVren posizioa.

2024KO UDAL AURREKONTU PROPOSAMENA 27 MILIOI EUROTIK GORAKO DA



Andoni Alvarez alkatea, Goizane Alvarez Foru Diputatua eta Jimmy Brosa Euskaldunako lehendakaria. AIURRI

Zelai berriaren finantzaketan lagundu du Aldundiak

Kirol diputatua alkatearekin eta Euskaldunako ordezkariarekin bildu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.359.000 euroko inbertsioa egin du Beterri-Buruntzan, kirol instalakuntza ezberdinetan. Andoainen, berriki, Ubitarte futbol-zelaia berri da eta hori gauzatu ahal izateko 82.669 euroko diru kantitatea bideratu du Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak. 2017-2020 urteko kirol ekipamenduen planari esker, Andoain herriak hainbat partida jaso ditu: 435.191,50 euro Arrate pilotalekua eraberritze-ko; 10.942 euro Bazkardoko frontoia konpontzeko eta 33.880 euro Karrikako Pump Track pista eraikitze-ko.

Podemoseko afiliatuen bazkaria

Miren Gorrotxategi Podemoseko Lehendakariagaia babesteko afiliatuen arteko bazkaria egin zuten Andoainen, aurreko larunbatean. Argazkian, Pepe Iparragirre eta Tere Santana Andoaingo bozeramaileak Miren Gorrotxategi, Pilar Garrido eta Miren Etxebestekin batera.



AIURRI





AIURRI

Bigarren asteko sariduna

Abiatu da Egunean Behin lehiaketaren 14D denboraldi berria, eta "Aiurri" taldean bigarren asteko sariduna "Ane" urnietarra izan da. Urtarrilak 22-28 asteko 7 partidak jokatu zituen, eta ehunka lehiakide dituen Aiurri taldean 76. postuan sailkatu zen. Hirugarren astekoa Izaskun Eizagirre izan da.

arruti pasteleria
gozotogia

**Etxeko obradorea
Enkarguak jasotzen ditugu**

Babeslea:
egunean behin

Zumea 18, ANDOAIN
943 593 777

Lantaldea osatzeko lan eskaintza egin du Bisitarien Etxeak

"Leitzaran Bisitarien Etxerako gida-hezitzaile lanetan aritzeko pertsona baten bila gabiltza. Naturarekiko pasioa duen pertsona bazara, dinamikoa eta balioanitza bidali jarri gurekin harremanetan eta bidali zure CVa". Bidaltzeko epea otsailaren 16an amaituko da. Info@leitzaran-andoain.eus e-posta elektronikora bidali behar dira proposamenak. Lanpostuaren eskakizunak hauek dira: ingurumenarekin erlazioz aritzeko ikasketak, bizikleta mantentze-lanen ezagutza, ofimatika eta sare sozialen erabilera trebetasuna eta euskara maila altua eta ingeleraren ezagutza. Lan-hitzarmena martxoa-azaroa bitartekoa izango da.

Erorikoak saihesteko hitzaldia antolatu du Osasun Etxeak

"Erorikoen prebentzioa adineko pertsonetan" izenburuko hitzaldia datorren otsailaren 29an izango da, Bastero Kulturgunean. Goizeko 10:30ean hasiko da. Hainbat adituk parte hartuko dute bertan. Erizainek erorikoak saihesteko informazioa emango dute, baita erorikoak eta gero zer egin daitekeen azaldu ere. Andoingo Gizarte Zerbitzuen sailetik ere laguntzak eskainiko dituzte. Eusko Jaurlaritzatik, azkenik, tele-asistentziari buruzko xehetasunak eskainiko dituzte.

Martxan da Basteroko taberna ustiatzeko lehiaketa

Bastero Kulturguneko ostalaritza-gunea kudeatzeako prozesu berria abiatu du Andoingo Udalak. Zerbitzu kontratu bidez egingo da, eta, eta legeak diotari jarraiki, bi urterako lizitazioa izango da, beste bi urterako luzagarri izango delarik. Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 19an amaituko da. Udaleko Kontratazio zerbitzuan informazioa eskaintzeko prest dira. Telefono-zenbakia: 943 300 830.

IN MEMORIAM



Mikel Ansa Goenaga, artxiboko irudian. AIURRI

Mikel Ansa Goenaga andoaindarra zendu da

Andoingo Upategi baserrian jaioa, berriki alargundu zen Arantxa Zeberio emaztea hil baitzen abenduaren 16an

Xabier Lasa ANDOAIN

Gure artean arrasto sakona utzi zuten pertsonen memoria bizirik mantentzen tinko jardun zuen Mikel Ansak. Haien artean, euskal mendizaletasunaren historian egundoko balentriak egin zituen Xabier semearena. 1996ko uztailaren 3an Europako Pikuetan dagoen Urriellu haitza eskalatzeko ari zela hil zen. Haren biografia osatu zuen Ramon Olasagastik "Mendi minez" (2007) liburuan, eta idazleari laguntza handia eman zioten Arantxa Zeberio emazteak eta biek.

Ansak, bestalde, parte hartu zuen Oroituz elkarteak Andoingo Udalaren laguntzarekin Tolosako eta Buenos Aireseko (Argentina) epaitegietan 2019an ipini zuen frankismoaren krimenen kontrako kereilan. Izena

eman zuten 22 biktimetako bat izan zen bera.

Kereila hartan, batetik, Jose Antonio Ansa Ulanga (Andoain 1917-Bizkaia, 1937) osabaren kasuarekin lotutako testigantza eman zuen. Osabak altxamendu militarra piztu eta agudo egin zuen bat Errepublikaren defentsan, ezkerreko milizietan parte hartuz, eta Bizkaiko frontean, 1937ko martxoan hil zuten. Bere gorpurekin zer gertatu zen ez zuen jakin familiak sekula.

Bestetik, 1979ko maiatzean BVE talde paramilitarrak erail zuen Joxe Ramon Ansa Etxeberria ilobaren kasua ere eraman zuen kereilara. Hiltzaileek, diktaduratik inpunitate osoz zetozen estatuko aparatuen babesa izan zutenaren ustea eduki izan zuen beti Mikel Ansak.

ESKELA

Mikel ANSA GOENAGA

(Arantxa Zeberioaren alarguna)
Otsailaren 5ean hil zen, 86 urte zituela



Bere seme-alabak: Xabier (†), Gurutze eta Josu Osa;
bilobak: Maia eta Asier, Intza eta Ander, Malen, Oier;
anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak,
bere zaintzailea: Nieves eta gainerako ahaideak.



Andoain, 2024ko otsailaren 6an

POSTONTZIA

NEREA IZAGIRRE EL SALVADORREN BIZI DEN ANDOAINDARRA

El Salvadorren, elikadura burujabetzaren bidean

Badira ia hamabi urte Euskal Herria utzi nuela, Sara nire alaba zaharrena eta garai hartan nire senarra zenarekin batera. Bi urtetarako abentura izango zenak askotxo erakutsi dit; unibertsoak bete behar nuen lekuan jarri didala esango nuke.

Dagoeneko, atzean geratu dira El Salvadorrera ekarri ninduten arrazoiak, hots, garapen-lankidetzeta eta emakumeen aldeko proiektuak. Hamar urtetan, Mugen Gaietik Donostiako Gobernu Kanpoko Erakundearen eskutik lau proiektutan parte hartuta, esperientzia eta ikasgai ugari ditut soinean. Orain urte eta erdi inguru, ordea, bizitza erabat iraultzeko erabakia hartu genuen. Hau da, soldata finko baten segurantzeta eta lan baldintza erosoak utzi, eta, emeki-emeki, eraikitzen ari ginen familia proiektuan buru belarri murgildu ginen. “Las Barillas Finca Agroecologica”az ari naiz, Suchitotoko Papaturreto nekazal komunitatean 6.000 metro karratuko lurzoruz, hain justu.

Etxeko elikadura burujabetza bermatzea zen helburua. Denborarekin, bizimodu eta ogibide bilakatu dugu. Momentuan, Txele nire bikotea, Yaayan gure alaba eta hirurok, nire bikotearen anaia gazteenak (Victor eta Carlos, 17 urteko nerabeak) eta auzoko bizilagun bat (Ana) ari gara bertan lanean.

Ametsa lortzeko bidean zailtasun ugari izan dugu, eta horien artean bi dira nabarmentzekoak. Batetik, nekazal praktikari lotua, lur egokia lortzea, eta, bestetik, amatsunari lotua eta emozionalagoa dena. “Nire ametsa” zena nerabezaro bete-betean zegoen alabarekin elkarbanatzea. Lehenengo gaitzeta oso erraza izan zen, bigarrena, gaitzeta bidean gaude.



Nerea eta bere familia, hark helarazitako argazkian. IZAGIRRE

Bada bestelako hirugarren arazoa, oraindik ere pertsonalagoa dena eta gaitzeta ez bada ere, gaitzeta ahalegin handia eskatzen duena. Nire jatorriarekin lotua dago, “kalekume” izatearekin, europarra izan eta naturarengandik hain urrun aurkitzearekin. Nahiz eta hasieran bestelakorik pentsatzen nuen, egunerokotasunean neuzkan gabeziak nabarmendu zaizkit. Etengabeko lanean ari naiz, egunen batean nekazari %100 kontzientea bilakatzen.

Lehenengo zutabea, elikadura burujabetza

Konpromiso politikoa izatetik edo hitzetatik ekintzara pasa gara. Bide horretan gailurrean gaudela esango nuke, atzera-bueltarik gabe. Etxeko elikadura beharrei, % 85ean, finkatik bertatik erantzuten diegu, % 10 komunitatean bertan erositakoarekin eta gainerakoa kanpoan erositakoa. Gure lursailaren antolaketa dibertsifikazioan oinarritzen da: fruitu arbolak, barazkiak, errizoma, tuberkuluak eta sustraiak, arraina eta ahuntzak. Tropikoan bizitzeak abantaila asko dakartzkigu: eguzkiaren presentzia eta indarra, hezetasun eta lehortearen arteko oreka,

“bizitza” nonahi ernetzea eta naturaren zikloen behatzaile izateko aukera paregabea.

Bigarren zutabea, ingurumenaren zaintza

Finka kokatua dagoen errecondoa, “Varillas erreka” alegia, Papaturreto komunitatea urez hornitzen duen iturburua da. Azken urteotan, deforestazio edo nekazal praktika ezegokien eragina jasan duenez, baso-berritze eta ur-ekoizpen praktiken behar dago. Hori dela eta, errecondoko lur-zatian, bertako 120 arbola eta fruitu- arbola landatu ditugu. Gure ekoizpen praktikak eta bizimodu ahalik eta jasangarrien egingo dituen baliabideak erabili eta sortu nahi ditugu: ureztatze eraginkorra, eguzki-energia, zabor-sorkuntza gutxitzea, eta, ahal den neurrian, finkan bertan ekoizpenerako zikloak ixtea.

Hirugarren zutabea, lan-baldintza duinak

El Salvadorreko beste hainbat nekazal komunitatetan bezala, azken urteetako joera migrazioarena izan da. Batik bat, “amerikar ametsaren” atzetik doazen mutil gazteena. Hori ikusita, familian gertukoak ditugun gazteei lan-baldintza duinak eskaini dizkiegu, lan eta ikasketak

bateratzeko aukera eta nekazaritzan lan egin ahal izateko. Une honetan, Txelen bi anaia gazte ari dira lanaldi erdira, eta auzoko neska gazte bat asteen hirutan. Gazteentzako adina lana badago.

Laugarren zutabea, lurra lantzearen bideragarrtasuna

Familiaren elikadura burujabetza ziurtatuta, soberakinak saltzen hasi ginen, erreferente izatera iritsi garen arte. Barazki eta fruitarekin ekin bagenion ere, egun, bestelako produktuak ere eskaintzen ditugu. Gure ekoizpenak ematen digun lehengaiekin sortutako produktuak dira irinak, kontserbak, behi eta ahuntz gaztak, fruitu deshidratatuak, aurrez prestatutako jakiak...

Salmenta zuzena, helburu nagusia

Lana bikoizten badigu ere, hainbat abantaila eskaintzen digu erosleekin kontaktua edukitzeak; besteak beste, fideltasuna lortzeko. Igandero, gure salmenta puntu finkoa Suchitotoko plaza inguruan kokatzen da.

Proiektuaren bideragarrtasuna bermatzeko beste bi bide ireki ditugu. Batetik, nekazaritza organikoa eta familia nekazaritza sustatzen ari diren erakundeek kudeatutako bisitaldiei harrera egitea. Bestetik, Las Barillaseko sukaldaria irekitzea izan da. Gure produktuekin egindako sukaldaritza esperimental da, % 100ean bertako sukaldaritza.

Autogestioa garatzeko une erabakiorra bizi dugu

Proiektua, gaur egunera arte autogestionatua izan da. Herrialdera iritsi nintzenetik gaur arte, biok irabazitako diru guztia bertan inbertitu dugu. Orain une erabakiorra iritsi gara, gure lur sailaren ondoko lur zatia erostea eskaini digute.

Erosketarako epe-muga zehatza dugu, gainera. Eskaintza ez onartzeak ekar dezakeen arriskuak asko arduratzen gaitu. Kontuan hartu behar baita El Papaturreto nekazal eremuko lursailak salgai jartzen direnean gutxi batzuen esku geratzen direla. Eta, normalean, lursaila zaindu behar, ingurumenaren hondamena eragiten duten praktikak burutzen dituztela. Hots, deforestazioa, abeltzaintza estentsiboa, kutsadura...

Hori dela eta, elkartasun deia egiten diegu familia, lagun, ezagun, ezezagun eta aukera duen edonori. Etsia hartu aurretik, diru biltzea saiakera egin nahi dugu: epe-muga amaitu baino lehen –2024ko martxoa–, gure mezua ahalik eta jende gehiengoarengana helduko balitz, eta 20 euro pertsonako gehieneko ekarpena eginez, oso baliagarria izango litzateke guretzat.

Zuk ezin baduzu, lagundu mezu hau zabaltzen. Ekarpeneren ordain gisa, zer edo zer eskaini nahiko genizuke, nahiz eta distantziatik oso zaila izan. Hala ere, interesa duen guztiari gure proiektuaren berri emango genioke, sare sozialetan aipamena, eta antzekoak eginez. Eta, noski, inor El Salvadorrera etorriko balitz, gure etxeko ateari irekiko genizkioke, gure ekoizpenaren dastaketa egin dezan. Aldez aurretik eskerrak eman nahiko genizkizuke, besterik ez bada lerrook irakurtzeko hartutako lana eta denboragatik.

Ekarpena egiteko aukera honako hau da:

- Noren izenean: Nerea Izagirre
- Kontu zenbakia: Laboral Kutxa 3035 0026 29 0261128697.
- Kontzeptua: Las Barillas donazioa.

NIRE USTEZ

HELENA ZUBILLAGA ANDOAIN

Zergatik? Zertarako?

Duela gutxi, kale batean erakusleihen batean geratu nintzen, koloreak atentzioa eman zidalako. Bertan zegoen kartel batek honako hau iragartzen zuen: "Jarriozu kolorea zure Kaikuri!!!"

Zintzilik ikusten ziren Kaiku gorriak, urdin argiak, horiak, arrosak, berde fosforitoak, artilezkoak, borlekin eta euskal probintzietako armarriekin... Erakusleihen berean maniki bat zegoen, blusa beltz batez jantzia, gona beltz batekin, zati batean bildua eta azpian beste gona bat erakusten zuena, marrazki zuri eta beltz distiratsu handiekin. Baserritar jantzi baten antzekoa izan nahi zuen. Irudiari burua falta zitzaion, horregatik ezin zen jakin jantzia osatzeko zapirik ba ote zuten, edo ez. Zapiarekin jantzeko arrazoirik ez zegoela usteko zuten, akaso. Edo, besterik gabe, buruan trapu batek modelo osoa desitxuratzen zuela pentsatuko zuten.

Nire ondoan bikote bat zegoen, eta jantzi hura oso gogoko zutela zirudien. Emakumeak, gainera, zeinen dotorea zen nabarmentzen zuen. Beraz, urrundu baino lehen, gizonak esan zion emakumeari: "Hainbeste gustatzen bazaizu, esaiozu amari oparitzeko!!!"

Elkarrizketa entzuten ari nintzela, amona Joxepa Iñaxi gogoan hartu nuen. XIX. mendearen amaieran Gabirian jaioa, gogora etorri zitzaidan haren irudia: marrazkirik gabeko gona ilunarekin, mantala ondo lisatuta, eta, noski, buruan zapia jarrita zuela. Zeren eta, nire amonak, emakume baserritar eta euskaldunak, bazuen burua! Halako batean, bikotea joan egin zen eta han gelditu nintzen neure buruari galdezka: "Zergatik? Zertarako?"

Andoaindarrok, Euskal Herrian, askok bezala,



Maniki bat erakusleihen. AIURRI

Gabonak, Santa Ageda eta antzekoak iristen direnean, ohikoa ez den jantziarekin ateratzen gara kalera. Batzuek *baserritar jantzia* deitzen diote, beste batzuek, berriz, *jantzi tradizionala*, nahiz eta ehun urteko historia baino gehiago ez izan. Kasu batean edo bestean, urte hauetan guztietan arrazoi batzuegatik edo besteengatik berritzen joan den jantzia da, eta euskaldun guztion jantzi bihurtu da. Bere ezaugarriak, lurralde osoan, ia berdinak direlako.

Etxegoienean, bere azken liburuan, XIX. mendea baino lehenagoko biztanleek zituzten janzkerak erakusten dizkigu. Eta ekoizpenean eragiten zuten faktoreak aipatzen ditu, adibidez, lihoaren ekoizpena edo ingurune bakoitzean zegoen ardi-kopurua, lanbide ezberdinak, zonalde bateko edo besteko klima, taldearen nortasuna eta taldearen barruko posizio soziala... Ezkonduen, ezkongabeen, alargunen, haurren, gazteen eta alkatearen janzkerak ez ziren berdinak. Hirietatik iristen ziren modek ere eragin handia zuten, eta joera tradizionalaren iraupena arriskuan jartzen zuten. 1754an, Manuel Larramendi kexu zen janzkera tradizionala galtzen ari zelako Frantziaren eta Espainiaren eraginez.

Larramendik bazekien zer zetorren. Galera etengabeko prozesua izan zen, eta moda nagusitu zen Euskal Herri osoan. Gainera, XIX. mendean fabrikak agertu zirenean, baserritar gazte asko hasi zen industriari lanean eta janzkera aldatuz joan zen hiri batetik bestera. XX. mendearen erdialdean, kulturaren izenean, hiria eta modernizazioa aldarrikatzen hasi ziren, eta tradiziozko guztia gutxiesten. Hori gutxi ez eta gainera frankismoa nagusitu zen, euskalduntasunarekin lotura zuen guztiarekin bukatu nahian. Deskalabru horrek eta hainbeste debeku gure izaera eta nortasuna aldarrikatze beharra ekarri zuen, eta, horretarako, hori guztia irudikatuko zuen zerbait behar zen, eta une hartan baserritarren jantzia zen galtzen ari ziren balioak sinbolizatzen zituen. Hala nola hizkuntza, kultura, ohitura zaharrak.

Eta jantzi ginen, bai, baina guztiz eraldatuta zegoen jantzia, lihoaren eta artilearen antzik ez zuten oihalez egina. Emakumeen gonak ez ziren Joxepa Iñaxi jantzen zituenak bezalakoak. Ez zitzaigun axola belauneraino puntu zuriekin gona beltza janztea eta mendiko botak edo txaketa eta gainean tokilla bat eranstea. Melenak luzitzea eta buruko zapia baztertzea aukeratu genuen, ahaztu egin zitzaigun edo inork ez zigun kontatu jantzi hori beste guztien gainetik emakume euskaldunen ezaugarria zela. Gizonen arropen ere ez zuten nire aitona Isidororen arropen antzik, galtza bakeroak edo mendikoak blusa beltz disdiratsuarekin bat egiten zuten, txapela ere batzuetan bai eta besteetan... "Zertarako?"

Laurogeita hamarreko hamarkadara iritsi ginen sentituz janzkera hark ez zuela gure herriaren nortasuna adierazten, gure jarrerarekin

ez genuela gure arbasoen herentzia kulturala babesten. Konturatu ginen horrek euskal kultura tradizionalaren transmisiorik eza ekarriko zuela. Horrela, Albisu andereak eta beste profesional batzuk ikerketa zorrotza egin zuten. Esan ziguten, besteak beste, gure nortasuna lehen begiratuan ikusten zen horretan islatu behar zela, hau da, hizkuntzan, dantzan, musikan, beste arte batzuetan, eta, jakina, janzkeran.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran, XIX. mende amaierako euskal nekazarien janzkera erreproduzitzeko eta jarraipen historiko erreala emateko aukera izan genuen, eta neurri batean lortu genuen. Baina gaur egun, berriro, eta gero eta gehiago, batzuek "jantzi tradizional berriak" deitzen dituzten jantziak ikusten ditugu, imitazio traketsa besterik ez direnak, oihalaren kalitatea errespetatzen ez dutelako, estanpatuek eta koloreek ez dutelako gure arbasoenekin zerikusirik. Kirol-zapatillen janzkera arrunta bihurtu da, lauburuak, eguzkiloreak bordatuak ikusten dira edozein jantzian. Txapela, batzuetan, bai. Beste batzuetan, ez. Orrazkerak luzitzen ditugu eta kajoian uzten dugu mundu osoari "emakume hau euskalduna da" adierazten zion jantzia.

Egun seinalatu horietan, gure arbaso baserritarrak egiten zuten moduan janztea aukeratzen dugunean, ez gara moztortzen ari. Egiten ari garena gure kultura, gure esentzia, gure nortasuna oroitu eta duintzea da.

Burua zapiarekin estaltzen dudanean, mantala gona ilunaren gainean jantzen dudanean, nire birramona, nire amona, nire ama omentzen ari naiz. Izan ziren eta izango diren emakumeak omentzen ari naiz. Orduan, zergatik? Zertarako? Gogoeta egiteak merezi du.

IN MEMORIAM



Fernando Giner Viver. AIURRI

Aitaren bizitza liburura eramandu alabak

Fernando Giner Viver 2020an zendu zen eta, berriki, Eva Garner alabak liburua argitaratu du

Xabier Lasa ANDOAIN

Fernando Giner 2020ko urriaren 15ean hil zen, 83 urte zituela. Jatorriz katalana, Andoainen bizi izan zen azken urtetan, eta besteak beste, Alberto Agirre abesbatzako kantaria izateagatik zen ezaguna. Berriki, bere alaba Eva Garnerrek "El hombre de las Mil Radios" liburua idatzi du, aita gogoan. Olagain musika eskolan aurkeztu zuen joan den ostiralean, abesbatzako kideen aurrean. Horiek, Fernando gogoan, "El Rossinyol" abestu zuten. Egileari egindako elkarrizketa aurki daiteke Aiurri.eus gunean.



Eva Garner alaba. AIURRI

Txitibar plazatik abiatuko dira konpartsak, ohi bezala. **AJURRI**

Inauteri giroko asteburua dator

Eguraldiaren iragarpen kaskarrenak ere ez du zapuztuko inauterizale askoren gogo. Prezipitaziorik gabeko asteak igarota, antza, egun euritsuak daude iragarrita. Aterkipean eta babesean bada ere, mozorroak jantzi eta kalera irteteko garaia da

Erredakzioa ANDOAIN ETA URNIETA
Konpartsak azken ukituak ematen ari dira orduotan, eta ez dira gutxi izango zein mozorro jantziko duten erabaki gabe daudenak. Denbora egon badago, jakinik gainera, mozorroak baino garrantzitsuagoa izan ohi dela jaiaren aldeko jarrera izatea. Azkenera, gauza gutxirekin mozorro ederrak bezain dibertigarriak egin daitezke. Badira irudimena gehixeago lantzen dutenak eta, ohikoan, horiek dira nabarmentzen direnak. Gainerakoan, taldean murgildu eta jaiatzeko aukera eskaintzen du Inauteriak.

Andoainen eta Urnietan egun handia larunbatekoa izango da. Egun horretan hurbiltzen baita jende gehien Inauteri festara. Tolosatik gertuago dagoelako edo, Andoainen aurreko asteburutik antzematen da Inauteri-

giroa. Dagoeneko, hainbat leiho TANeta balkoitan oihal koloretsuak zintzilik daude. Erakusleihen batean baino gehiagotan maskarak eta mozorroak ikus daitezke. Elementu horiez gain, aurreko larunbatean, Inauteriak badatozela iragartzeko hurbildu

ziren herrigunera Kaldereroak. Ostegun honetan, ikasleak murgilduko dira mozorro festan. Eta, igandera bitarte, Andoainen musika, karrozak eta konpartsak batera eta bestera mugitzen ikusiko ditugu. Gorputza eta arima dantzan jartzeko sasoia da.

Idiazabal kalea festazalez beterik, artxiboko irudian. **AJURRI**

EGITARRAUA

Aiurri.eus webgunean Inauterien jarraipena: Argazkiak, bideoak...

ANDOAIN

OTSAILAK 8

OSTEGUNA

- 14:45 Ospakizuna ikastetxe bakoitzetik abiatuko da. Txikiak bakoitza bere ikastetxean egongo dira. Helduagoak Goikoplarantz abiatuko dira.
- 16:15 Pregoia eta txupinazoa Udaletxeko balkoitik. Eguraldi txarrarekin, Ondarreta Ikastetxeko jolasleku estalian. Gora Kaletxikik, Gauerdik eta trikitilariak lagunduta.
- 17:00 Musika Eskolako saioa Goikoplazan.
- 17:30 Maskara tailerra Gazte Lokalean.
- 18:00 DJ Porru Goikoplazan.
- 18:30 Olagain txistularien kalejira Goikoplazatik abiatuta.

OTSAILAK 9

OSTIRALA

- 17:00 Disko festa Ludotekan.
- 17:00 Lebiton konpartsa, Basterotik abiatuta, Zumea plazara.
- 17:30 Bingo berezia Anbrosia Olabiden.
- 18:00 "Vertical" kale ikuskizuna Zumea plazatik Goikoplararaino.
- 21:30 Malkogariyak.
- 00:00-02:00 DJ Ezekiel Goikoplazan.

OTSAILAK 10

LARUNBATA

- Otsailak 10, larunbata**
- 11:00 Ospakizunaren hasiera.
- 17:00 Inauteri desfilea.
- 22:30 Nemux DJ Goikoplazan.

OTSAILAK 11

IGANDEA

- 12:00 Jaiaren bigarren eguna.
- 14:00 Herri bazkaria Goikoplazan.
- 16:45 Txarantukada elektrotzaranga.
- 19:30-20:30 Sardinaren segizioa, Goikoplazan hasita.
- 20:30 Sardinaren ehorzketa Goikoplazan.

URNIETA

OTSAILAK 9

OSTIRALA

- 17:00-20:00 12-16 urtekoentzat Inauteri festa Gaztelekuan.

OTSAILAK 10

LARUNBATA

- 14:30 Herri bazkaria Plazido Muxikan. Euria egiten badu, Egapen.
- 17:00-19:00 Mozorro-kalejira, plazatik abiatuta. Ondoren mozorro onenei saria.
- 18:00-20:00 Kitadelpare txaranga.
- 19:00-21:00 Abiba Disko Jaia Zaldundegi plazan.
- 22:30-00:30 Abiba Disko Jaia Zaldundegi plazan.

Andoainen sardinaren ehorzketarekin amaituko da jai. **AJURRI**



Kaldereroen konpartsako ordezkariak zabala hurbildu zen pleno aretora. AIURRI

Datorren urtean, Otietan barrena iritsiko dira

Otietako tunela zabalik izanez gero, garaiz iritsiko liratekeela bota zuen Uribesalgok. Aktualitateari eutsita, Kaldereroen ordezkariaren adierazpenak ikuslegoaren irribarrea bereganatzea lortu zuen. Umore ona lantzeko sasoi paregabea da Inauteria

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzara iritsita, lehen pieza jotzeari ekin zion Gora Kaletxiki Bandak. Joxe Mari Oiarzabalen zuzendaritzapean, musikarien eta konpartsakideen arteko harmonia erraz lortu zen. Ordurako, San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzako egoiliarak saioa entzuteko prest ziren. Kanpoaldean eserita, musikaz eta zartagi hotsez bete zen ingurua. Egoiliarrekin batera, konpartsakideei begira zeuden zaintzaileak eta egoiliarak.

Udaltzaingoak gidatuta, konpartsa Kaletxikitik zuzen-zuzenean igo zen Goikoplazara. "Txupi" Ibañezek ordurako prest zuen kanpalekua girotzeko sutea. Udaletxearen kanpoaldean herrikide ugari zegoen, konpartsaren zain. Barrualdean, pleno aretoan, ordezkari politikoei harrera egin zieten. Minutu gutxira Luciano Uribesalgo Hungariako Kaldereroen ordezkariak adierazpena irakurri zuen. "Otie-

tako tunela itxita dagoelako iritsi gara berandu" bota zuen, ikusleen irriak sorraraziz. Ez pentsa Otietaren ordezkari B plana hobea zenik! "Hernanitik gerturatzeko ere nahikoa lan iristeko", erantsi zuen, Bazkardoko lotuneari aipamena eginez. Madrildik lotune haren alternativa osatzeko 476.000 euroak ez direla iritsiko erantsi zuen,

hango politikarien artean lapur asko dagoela gaineratuz. "Gora Kaldereroak! Gora Andoain!" oihukatuz amaitu zuen hizketaldia. Gailetak eta goxokiak banatu ostean, Kale Nagusitik behera Zumea plazarantz jaitsi zen Kaldereroen konpartsa.

Beste behin ere, andoaindarrek Kalderero jaiari eutsi diote. Ez da gutxi!



Uribesalgok gogoan hartu zituen politika eta garraio arloko hainbat kontu. AIURRI

Arratsaldean abiatutako ospakizuna



Kalderero gazteak San Juan Bataiatzailea egoitzaren kanpoaldean. AIURRI

Bisitaldia Arratsaldeko 17:00ak zirenean Gora Kaletxiki Bandako musikariak San Juan Bataiatzailearen egoitzara sartu ziren. Musika joz egin zuten, nola bestela! Haien atzetik elkartzuz joan ziren kalderero helduak eta gazteak.



Kaletxikin kalderero gazteenak, Esteberen kamioian. AIURRI

Kalejira Ama Kandidan bisitaldia egin eta gero, Kaletxikin gora abiatu ziren kalejiran. Esteberen kamioiak irekitzen zuen bidea, eta haien atzetik Gora Kaletxiki Bandako musikariak eta festara elkartu ziren gainerako herrikideak.



Kaldereroak iristerako sua piztuta zegoen. AIURRI

Kanpalekua Agintariek harrera egin zieten kaldereroei, udaletxeko pleno aretoan. Balkoira irten ziren goxokiak banatzera eta adierazpena egitera. Luciano Uribesalgok hartu zuen hitza, besteak beste, Inauteriak badatozela iragartzeko.



Koldo Izagirre idazlea, Amagoia Gurrutxaga Lanartea elkarte langilea eta Joseba Tapiak trikitilaria. AIURRI

"Profesionalak izan ginen urtea" liburuaren aurkezpena

Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkarteak liburua argitaratu zuen Durangoko Azokaren atarian. Andoingo Udalaren laguntza jaso zuen argitalpenak, eta asteartean Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoan egin zuten aurkezpen ekitaldia

Xabier Lasa ANDOAIN

"1976. Profesionalak izan ginen urtea" liburua aurkeztu zuten Amagoia Gurrutxagak, Koldo Izagirrek eta Joseba Tapiak, astearte iluntzean. Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkarteak antolatu zuen ekitaldia, Udalaren laguntzarekin. Euskaraz lan egiten duten idazleek, marrazkilariek, musikariek, itzultzaileek, bertsolariek eta aktoreek osatzen dute Lanartea. Andoingo Udalak laguntza eman du liburuaren argitaratzeko.

Marta Lasa Kultura zinegotziak egin zuen hiru kulturgileen eta horiek besapean zekarten liburuaren aurrerapen laburra. Horrela, 1976. urtea zergatik hartzen duen liburuak ardatz gogoratu zuen Lasak: "1976an euskal prentsaren urtea izatea erabaki zuten euskal hedabideek; hots, Anaitasunak, Goiz Argik eta Zeruko Argiak. Erabaki horren arrazoia zera zen, euskal prentsan idazteak doako militantzia suposatzen zuela. Horrela ezin informazioa hedatu, artikulua eta iritziak

ez baitziren aski garaiko erreallitatea islatzeko. Errepresio politikoa, atentatuak, euskal kulturaren bazterketa politikaren mesedetan...".

Profesionaltasuna, xede

Koldo Izagirre eta Amagoia Gurrutxaga 1976ko urteko hainbat pasarte edota zenbait kulturgilek egindako adierazpenak eta gogoetak harilkatzen joan ziren, aurkezpenean barrena, eta tarteke, Joseba Tapiak, kantuak eskaini zituen zuzenean.

Nahiz eta 1976ko urtea aztergai eduki liburuak, ordukoa gaurko egoerara proiektatu nahi dute egileek, nolabaiteko konparaketa historikoa egin nahi dute. Horregatik, Izagirrek argi asko azaldu zuen liburuaren atzean dagoen aldarria, eguneratua, mintzaldia hasi eta agudo: "Antzerkilariak, bertsolariek, kantariak musikariek, irudigileak, itzultzaileak, idazleak, ipuin kontalariek, kazetariak... ari dira euskal kultura eusten, on-tzen eta aurreratzen. Euskararen langile profesionalak, estatutu berezi bat behar dute, euskaraz sortutako kulturaren legea ezarri beharra dago. Gure sortzaileek duintasunez bizi behar dute; sortzen duten lanen kalitateak merezi du gaur ez duten ikusgarritasuna munduan zehar. Batez ere Euskal Herriaren munduan".

1976an euskararen profesionala izatea soldata bat lortzea zela lehenik, adierazi zuen Izagirrek. "Eta, ondorioz, lanordu osoak euskarari emanda, harro egotea egindakoaren kalitateaz. Euskararen barruan bazegoen nolabait profesionaltasun bat bertsolarietan eta trikitilarietan; egindako lana ordaintzen zitzaie behintzat. Profesionaltasun osoaren aldarririk gardenena eta garratzena, Lurdes Iriondok egin zuen hamar urte lehenago".

Lourdes Iriondok 1966an egin zuen hausnarketa

Amagoia Gurrutxagak errepi-katu zituen Iriondok 1966an esandakoak: "Irrati bat badugu, Loiola Irratia, asteroko bat badugu, Zeruko Argia; ia herri bakoitzean ikastola bat badugu, abeslariak baditugu, bertsolariek ere bai. Poesia-liburuak, idazlariak, dantza-taldeak, antzerki-taldeak... Askok edo gutxi daukagun, hori bakoitzaren iritzirako dago. Baina daukagun hori, erdi abandonatua daukagu. Euskaldun izateko beharrezkoa da hiltzen dihoan euskal kulturari bultzada eta laguntza sendoak eskaintzea. Hiltzen dihoan euskal kultura diot, baina euskal kultura ez da berez hilko, guri bost axola zaigulako hilko da, hiltzen bada. Nola nahi dugu gure antzerkiak, abestiak edo irratiak herrikoak izatea, behar bezala laguntzen ez badiegu? Euskal artistak bere bizi guztian gratis lana egitera kondenatua egon behar al du?".



Azala. LANARTEA

Euskararen langile profesionalen elkarte

Liburuaren aurkezpena:

1976, senyera onartua, ikurrina ez. Amnistia? Egurra! Euskara Unibertsitatean, ergelkeria. Liburu dendak? Jo eta txikitu. Bienalea Venezian. Zergatik leku bat euskaldunek? Euskaraz egitea, arrazakeria. 24 orduak euskaraz, izugarritzko erakustaldia. Behin. Bitxia, emakumezkorik ez mikrofotik. Bitxia? Emakumezkoak gehiengoa irakaskuntzaren euskal sisteman. Lider abertzale euskaldun batek 51 minutuko mitina erdaraz eta 45 segundoko mitina euskaraz. Donostian. Egurra? Bai zera, efikazia! Euskaldunak naziak dira. Alemanian esana. Sozialista espainiar batek, Alemanian. Euskal alderdi politikoen aldizkariak salgai. Baina euskarari konpetentziarik egin gabe. Egurra gehi adarjotzea. Hala ere, ezinezkoa badirudi ere, Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkariak euskal kazetaritza profesionala abiatu zuten traba, gezur, zigor eta mespretxu guztien gainetik. 1976an, bai.



Ordezkarari politikoak, industria-adituak eta Lanbide Heziketako eragileak igo ziren oholtzara, aurreko ostiraleko ekitaldian. AIURRI

Euskararen garrantzia Lanbide Heziketan

Aurreko ostiralean, Magale-Salestarrak ikastetxean, euskaraz jarduten duten Lanbide Heziketako eragile ugari bildu zen, Laneki erakundeak deituta. Askotariko erakundeetako ordezkariak hartu zuten hitza, euskararen aldeko mezuak zabaltzeko

Erredakzioa URNIETA

"LH Duala Euskaraz" egitasmoaren aitortza-ekitaldia egin zen joan den hilaren 2an Maga-

le-Salestarrak ikastetxean. Aurretan, Copreciren, Aita Menniren eta Elkarmediaren ibilbideari egin diete aitortza ekimenaren

sustatzaileek, "lan eremuan euskararen erabilera sustatzeko erakutsi duten konpromiso eredugarriagatik". Horrez gain,

aipatutako hiru enprekin harremana duten ikastetxeek ere saria jaso zuten: Meka LHII, Mariaren Lagundia, Aretxabaleta Lanbide Eskola LHII, Arizmendi Ikastola, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Miguel Altuna LHII eta Izarraitz lanbide Heziketa LHII. Helburu bikoitza du Laneki elkartearen, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanean ondutako egitasmoak: batetik, euskara oinarri duen Lanbide Heziketa bultzatzea; eta, bestetik, ikasleen lan munduratzea euskaraz gauzatzeko bidean lan egiten duten ikaste-

txeak eta lantokiak azpimarratzea.


Saridunez gain, zenbait ordezkari politiko ere bertaratu zen sari-banaketa ekitaldira, besteak beste: Jorge Segurado, Urnieta-ko alkatea; Garbiñe Mendizabal, Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendaria; Estibaliz Alkorta eta Nicolas Sagarzazu, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustapeneko zuzendaria eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketaren zuzendaria; Ainitze Blanco, Laneki elkartearen lehendakaria; eta Lanbide Heziketako sareko hainbat irakasle eta ordezkari.

Antolatzaileen esanetan, 2023an jasotako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 14.633 ikasle izan ziren Lanbide Heziketa Dualean, eta horietatik 4.050 ikasle euskaraz aritu ziren. Atzera begira jarrita, Gipuzkoan 4.016 lantokik baino gehiagok eskaini dute, azken bost urteetan, Lanbide Heziketa Duala ,euskaraz.

Zer da LH Duala?

Lantokietan zein ikastetxeetan ikaskuntza-prozesuak konbinatzen dituen egitasmoa da, batzuen eta besteen arteko lankidetzaren bitartez, eta lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea du xede. Ikaskuntza bera ahalbidetzeaz gain, zenbait gaitasun eskuratzea bermatzen du. Zenbakiari erreparatuta, ikasleen %70ak eskuratzen du kontratua. Urnietan, Magale-Salestarrak ikastetxea ekimenaren barruan dago.

Erakundeen ordezkariak zabala, Urnietako ekitaldian



Jorge Segurado, Urnietako Udala

"Euskara erabiltzeko deia egiten dut. Enpresetan euskararen erabilera indartzeak nortasun kulturala indartzeaz gain, enpresen jardura eta lehiakortasuna sustatzen ditu".



Garbiñe Mendizabal, Gipuzkoako Foru Aldundia

"Europar ereduak jotzen dute gure Lanbide Heziketa sarea, aitzindaria delako gauza askotan. Euskararen ikuspegitik ere bai, ikasle askori euskaraz kalitatezko formazioa eskaintzen diolako".



Esti Alkorta, Eusko Jaurlaritzak

"Euskara jardura ekonomikoan sustatzeko plana martxan jarri zuen Eusko Jaurlaritzak, 2020an. Ibilbidea osatzen ari gara euskararen sakondu nahi duen edozein enpresa pribaturentzat".



Ainitze Blanco, LANEKI Lanbide Heziketa

"Etorkizuneko profesionalak trebatzen ari gara, Lanbide Heziketan. Euskara ikaslearentzat gaitasun bat da eta enpresentzat balioa erantsia emango dion aldagaia".



Alex Arriola, SPRIko zuzendaria ohia

"Gaur egiten duguna hurrengo belaunaldian eragin positiboa izatea da jasagarritasuna. Euskara, jasagarritasuna eta lehiakortasuna hiruko horretan euskarak badu bere lekua".



Arrantzale eta betiko lagun ugari elkartu zen Unanibian aurreko larunbatean. AIURRI

Jonathan Torralbori azken agurra, Unanibian

Andoainen aparteko zirrara eragin du egunotan, arrantzan, mundu mailako sariak irabazi zituen Jonathan Torralbo Ruizen heriotzak, 45 urte zituela. Arrantzako eta Andoaingo betiko lagunek azken agurra eskaini zioten Unanibian, larunbat arratsaldean

Xabier Lasa ANDOAIN

Agur bikoitza egin zioten, Leitzaranean lehenbizi, eta San Martin parrokiaren ondoren. Berak hainbeste maite zuen Leitzarane ibaiaren ondoan, Unanibiako zubian, egin zuten lehen omenaldia. Jonatharekin partekatutako makina bat une eta pasadizo, irrigarriak, hunkigarriak... konta zitzaketan han bildu ziren guztiek, baina emozioak bor-bor ziren guztien bihotzetan, eta isiltasuna izan zen nagusi. Iñaki Muñoz izan zen hitza hartzera animatu zen bakana, eta denen izenean, Torralboren ezaugarri pertsonalak nabarmendu zituen. Barne-barnetik atera zitzaizkion hitzak, emozioak gainezka zituela, eta arrantzan erakutsi ohi zituen giza-baloreak izan zituen mintzagai, batik bat. "Bera baino gazteagoak ginen arrantzale mordo batentzat, miresgarria zen Jony. Bazter honetara arrantzan egitera etorrira, ondoan edukitzen genuen maiz. Izugarri zekien, eta zekienetik dena era-



Loreak eta irudi handi bat ipini zituzten Unanibian. AIURRI

kusten zigun. Gogoan dut, behin, bizikletan nola eramanez ninduen Ollokira. Han bazter ezkutu bat ezagutzen zuela eta amurrain asko harrapatuko genituela esanez eramanez ninduen hara".

Muñozek, bukatzeko, Unanibiako zubian bildu ziren lagun

eta adiskide guztiei gonbidapena luzatu zien, etorkizunean, Otieta aldera, ibaira hurbil zitezten, eta hizketa gozoa egin zezaten Jonyrekin. "Arrantzan orduak eta orduak igaro zituen paraje maitagarri honetan jarraitzen duelako bere espirituak".

Ibilbide oparoko arrantzalea

Luzea da Torralbok, Europa zein mundu mailan, bakarka nahiz taldeka, lortu zituen garaipenen zerrenda. Euli-arrantzako modalitatean jardun zuen, batik bat. Honatx, lorpen batzuk, aipatzearren:

- 2002 Kantabrian, Espainiako txapelketa.
- 2004 Kantabrian, Espainiako txapelketa selekzioa, bigarren, Euskadi ordezkaturuz. Taldekideak: Aitor Urruzuno, Iñigo Urruzuno eta Santiago Llano Ricote. Eta, bakarka, hirugarren.
- 2006 Portugalen, munduko txapelketan, hirugarren, Espainiako selekzioarekin. Taldekideak: Pablo Castro, Santiago Serrano, Oscar Quevedo, Jose Mari Zendoia eta Jordi Oliveras; kapitaina, Norberto Royo.
- 2006 Kantabrian, Espainiako txapelketa taldeka, bigarren. Taldekideak: Aitor Urruzuno, Iñigo Urruzuno eta Rodolfo Gonzalez.
- 2008 Kantabrian, Europako txapelketan, lehena, taldeka. Taldekideak: Oscar Quevedo, Jordi Oliveras, Francisco Javier Herrero, Jose Mari Zendoia eta Jose Israel Gracia. Kapitaina, Norberto Royo.
- 2008 Alberto Hernandezekin batera, I. Leitzarango Arrantza-Masterreko txapela, Ontza ordezkaturuz.



Ansa, Azpiroz eta Juanenearen artean.

Gogotik egin zuen lan Ansak garaipena eskuratzeko

Urrats handia eman du urnietarrak, Kutxabank Masters txapelketako lehen jardunaldian

Erredakzioa URNIETA

Gaurkoz, Ansa Iia da azken txapelketa, eta aurten ere errepi-katzeko gogoz dago. Erraz etsitzeko ez dago, beraz, urnietarra. Azken emaitza ikusita, partida erraza izan zela dirudien arren, (30-22), gogor jo zuen norgehiagokak. Ikusleek gozatua hartu zuten buruz burukoarekin, baina Ansarentzat eta Juanenearentzat berdintasun handikoa izan zen. Oriamendik horrela azaldu du partidaren hasiera: "Partida 7-0eko partzialarekin hasi zen Ansarentzat. Baina Saldiaskoak ez zuen etsi. Joko onarekin Juaneneak partida berdintzea lortu zuen, eta 17-18 aurretik jarri zen markagailuan". Maila handiko partida izan zen. Gakoa hutsik ez egitea da, elite mailako edozein lehiaketetan gertatu ohi den bezala. Eta Ansak segurtasun handiagoa erakutsi zuen. Jokoa biak parez pare ibili ziren, baina Juaneneak huts gehiago egin zituen. Eta galdutako puntu horiei esker aurkariak bidea egiten du aurrera.

Ostiral honetan, 18:00tan hasita

Garaipen horrekin Ansak lau puntu lortu ditu ligaxkan. Ostiral honetan Ansa II-Azpiroren artekoa jokatu da Galarretan. Aukera berria urnietararentzat.



ANDOAINGO

Andoaingo Txirrindulari Eskola, denboraldi berrirako prest

Aurreko igandean, taldeko argazkia ateratzearekin batera, denboraldi berria aurkeztu zuten. Honako hau da 2024an Andoaingo Txirrindulari Eskolaren elastikoa jantziko duten txirrindularien zerrenda: Unax Guisado, Oihan Lopez, Ekai Astiasaran, Olaia Gayoso, Eneko Ugartemendia, Aratz Torres, Maddi Ormazabal, Harri Otaegi, Beñat Enciso, Xabat Martin, Liher Labaka, Lizar Zuriarrain, Iker Albisua, Unax Urizar, Adur Alkalde, Aiert Zelaia, Xan Lujanbio, Oinatz Arruti, Danel

Rodriguez, Aner Barrenetxea, Luken Garmendia, Liher Albizu, Iker Flores, Markel Aburuza, Ugaitz Tejeria, Urko Zelaia, Aharon Abreu, Irati Aranguren, Itziar Alkain, Izaro Etxarri eta Intza Del Teso. Entrenatzaileen aldetik, gaztetasuna eta eskarmentua uzartzeko jarraituko dute: Unai Galarza, Josu Iraola, Pedro de Godos, Ekhi Arrieta, Iñaki Arin, Aitzol Zuriarrain, Peru Alkain, Patxi Altuna, Luis Beneitez, Ane Usabiaga, Aitor Amutxastegi eta Jose Luis Barberena.



Izaro Etxarri. RFEC

Espainiako pista txapelketan parte hartuko du Etxarrik

Sevillako Dos Hermanas belodromoan jokoan izango da txapelketa, asteburuan. Etxarrik ondo ezagutzen duen pista da, Espainiako kopako lehen proba bertan izan zelako. Andoaingo Txirrindulari Eskolako, gainera, irabazle irten zen.



Irati Aranguren. RFEC

Munduko txapelketan parte hartu zuen Arangurenek

Txekian ospatu zen munduko txapelketan hartu zuen parte txapelketan junior mailan, Andoaingo txirrindulari eskolako Irati Arangurenek. 32. postuan sailkatu zen. Lorena Patiño Espainiako txapeladuna, Ana Lopez eta Aroa Otero izan zituen taldekide.



Leizaran Urdiñak. LEIZARAN

Euskal Ligako lehen jardunaldian, garaipena

Leizaran Urdinak kadete mailako taldeak Euskadiko kadete ligari ekin zion, Urdaibai garaituz (45-36). Bigarren jardunaldian, Barakaldon jokatu dute, asteburu honetan. Lehen jardunaldian, garaipena eskuratu zuten bi taldeek.



Julen Lizeaga, Urnieta Artola Harategia.

Leizaran Lanbroa taldea bakarrik ariko da asteburuan

Mutiletan, Leizaranek Arrasate gainditu zuen (23-18) eta Urnietak, Eibar (28-22). Nesketan ere, bi garaipen: Urnieta-Munttarperen aurka (14-20), Leizaranek Egiaren aurka (26-30). Azken honek partida du Allurralden: Leizaran-Kukullaga (larunbata, 15:30).

Futbol jardunaldirik ez da jokatu asteburu honetan

Inauteriak direla eta, futbol partidarik ez da jokatu. Aurrekoari begira, mutiletan, Urnietak Rotetaren aurka galdu zuen (2-0), eta Euskaldunak Soraluze garaitu zuen (2-0). Nesketan, Urnieta Lagun Onak B taldea baino hobea izan zen (2-1).

Saskibalo partidak Allurralden

Larunbat honetan, otsailak 10, hiru partida jokatu dira: 10:30 Ganbara Junior-Hernani. 09:00 Ganbara kadete-Hernani. 09:00 Ganbara InfNesk-Hernani.

kutxabank MASTERS
TXAPELKETA 2024

OTSAILAK 9 OSTIRALA 18:00ETAN
GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA 13 SETERAI

ZALOUA II - ESKUDERO vs GURRUTXAGA - AIESTARAN VI

MASTERS TXAPELKETA 130 TANTOI

ANSA II vs AZPIROZ

2. PARTIDA 13 SETERAI

URRIZA - LARRAÑAGA vs ALDABE - BARRENETXEA IV

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 8

ANDOAIN Ostegun Gizena

- 14:45 Ospakizuna ikastetxe bakoitzean abiatuko da.
- 16:15 Pregoia eta txupinazoa Udaletxeko balkoitik. Eguraldi txarrarekin, Ondarretako jolasleku estalian. Gora Kaletxikik, Gauerdik eta trikitalariek lagunduta.
- 17:00 Musika Eskolakoen saioa Goikoplazan.
- 17:30 Maskara tailerra Gazte Lokalean.
- 18:00 DJ Porru Goikoplazan.
- 18:30 Olagain txistulariak Goikoplazatik abiatuta.

OSTIRALA 9

ANDOAIN Ostiral Mehe

- 17:00 Disko festa, dantzak eta jolasak Ludotekan.
- 17:00 Lebiton konpartsa, Basterotik Zumea plazara.
- 17:30 Bingo berezia Ambrosia Olabiden.
- 18:00 "Vertical" kale ikuskizuna Zumea plazatik abiatuta.
- 21:30 Malkogarriyak Goikoplazan.
- 00:00-02:00 Dj Ezekiel Goikoplazan.



Urnieta inauteriak, hamar urte atzera eginez. AIURRI

URNIETA Inauteriak

Ostiralean, 17:00etatik 20:00etara, 12-16 urtekoentzat Inauteri festa Gaztelekuan. Larunbatean, 14:30ean herri bazkaria Plazido Muxikan. Euria egiten badu, Egapen. 17:00etatik 19:00etara,

mozorro-kalejira, plazatik abiatuta. Ondoren mozorro onenei saria. 18:00etatik 20:00etara, Kitadelpare txaranga. 19:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 00:30era, Abiba Disko Jaia Zaldundegi plazan. **Otsailak 9 eta 10. Urnieta.**

LARUNBATA 10

ANDOAIN Inauteriak

- 11:00 Egun osoko ospakizunaren hasiera.
- 17:00 Inauteri desfilearen hasiera Txitibar plazatik hasita.
- 22:30 Nemux DJ Goikoplazan.

IGANDEA 11

ANDOAIN Inauteriak

- 12:00 Jaiaren jarraipena.
- 14:00 Herri bazkaria Goikoplazan.
- 16:45 Txarantukadaren kalejira.
- 19:30-20:30 Sardinen segizioa, Goikoplazan hasita.

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

La tierra prometida (The Bastard)
Lar, 10. 19:30, 22:00.
Ig, 11. 19:30.
Astl, 12. 19:30, 22:00.

BIZKARSORO

Lar, 17. 19:30, 22:00.
Ig, 18. 19:30.
Astl, 19. 19:30, 22:00.

El color purpura
Lar, 24. 19:30, 22:00.
Ig, 25. 19:30.
Astl, 26. 19:30.



SINOPSISIA


**La Tierra Prometida (The Bastard)**

Zuzendaria: Nikolaj Arcel. **Aktoreak:** Mads Mikkelsen, Amanda Collin, Simon Bennebjerg, Melina Hagberg,... **Herrialdea:** Danimarka (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, abenturak. **Iraupena:** 127 min.

Oscar Sarietarako hautagaietako da

Ludvig Kahlen daniar lur eremu gogor eta babesgabeak konkistatzera doa, itxuraz ezinezkoa dirudien helburu batekin: erregearen izenean

kolonia bat sortzea. Mads Mikkelsen aktore onenaren Oscarra jasotzeko hautagaietako da, lan honi esker.



Kantu afaria

MARTXOAK 1, OSTIRALA

20:00 Altuna sagardotegia

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko

Izena emateko hiru aukera:

- Mezua idatzi Aiurrira: 📞 619 163 537
- Mezua idatzi AEKra: 📞 662 338 747
- Kantazaun taldekoekin harremanetan jarri



INISTORRI
Urnieta Euskaltzaleen
Biltzarra

KANTAZAUN





Espadan inguruko paisaiak. WIKIPEDIA

Aste Santurako mendi zeharkaldia, Euskaldunarekin

Castelloko Espadan mendilerroa hainbat eguneko ibilbidea antolatu du Andoaingo mendigoizale taldeak

Erredakzioa ANDOAIN

1936ko Gerrak lur horietan utzitako arrastoak jarraitzeko aukera izango da, mendiz mendi. Albuferako parkeko bioaniztasunaz eta paraje naturalez gozatzeko aukera edukiko dute, gainera, parte-hartzaileek. Martxoaren 28tik apirilaren 1era arte luzatuko da irteera. Prezioa bazkideentzat 435 eurokoa da. Bazkide ez direnek, aldiz, 450 euro ordaindu beharko dute.

Egitaraua:

Martxoak 28:

06:15 Irteera.
08:30 Tuteran gosaria.
16:00 Albarracinen egonaldia.
21:00 Iritsi eta afaria Berenguerreko Canet hotelean.

Martxoak 29

07:30 Gosaria.
08:30 La Rapita eta Espadan mendietara igoera. Bi ibil-

bide: Luzea, 14 kilometrokoa; motza, 10 kilometrokoa.

14:30 Bazkaria nork berea.

21:00 Afaria.

Martxoak 30

07:30 Gosaria.

08:30 La Albuferara bisitaldia, eta txalupan paseotxo.

21:00 Afaria.

Martxoak 31

07:30 Gosaria.

08:30 Sueras herrira autobusez. "Los organos de Beintandus" mendira igoera. Bi ibilbide: Luzea, 15 kilometrokoa; motza, 9 kilometrokoa.

14:30 Bazkaria nork berea.

16:30 Saguntón arratsalde pasa.

21:00 Afaria.

Apirilak 1

07:30 Gosaria.

07:30 Andoainera itzulera.

13:45 Bazkaria Cariñenan.

20:00 Andoainera iritsiera.

Nerabeen errealitate digitala aztergai izango dute Andoain

"Treba gurasoak" ekimen pedagogikoa Andoainera iristear da, Aldundiaren eta Udalaren eskutik. Lehen saioa haurren gurasoei zuzenduta dago. Datorren otsailaren 15ean izango da, Gazte Lokalean, arratsaldeko 17:30ean hasita. Hitzaldi honetan nerabeen errealitate digitala azalduko da, segurtasun digitalean familiak zer egin dezakeen azpimarratzeko. Guztira, haur eta nerabeen gurasoei zuzendutako lau hitzaldiko zikloa izango da, otsailean hasi eta maiatzera bitarte. Bertan, haur eta nerabeen gurasotasun arduratsua sustatzeko bidean interesgarriak diren hainbat gai jorratuko dira.

Treba Gurasoak, Andoain eta Urnietan

Egun bat lehenago, otsailaren 14an, ziklo bereko hitzaldia izango da Urnietan. 17:30ean hasiko da, Kiroldegiko bilera gelan. "Komunikazioa familian. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak eta komunikazioa hobetzea" izenburuko hitzaldia eskainiko du Leyre Canok. Hitzaldiaren helburuak honako hauek lirakeke, antolatzaileen arabera: komunikazioa onartzea eta asertibitatea ulertzea, entzumenaren eta komunikazioaren kalitatea hobetzea, hitzik gabeko komunikazioaz jabetzea, emozioak eta beharrak identifikatzea, konponbide fisikoak eraikitzen ikastea.

Hitzaldi gehiago iragarrita daude Andoain eta Urnietan. Biak ala biak martxoan izango dira, osasun mentala eta giza harremanak ardatz hartuta.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Uxue, Unai eta Jon

Urtarrilaren 18an, Unai eta Jon 6 urte bete zituzten eta, otsailaren 4an, Uxuek 9 urte. Hirukote maitagarria osatzen duzue! Muxu handi bana. Asko maite zaituztegu. Etxekoak.



ANDOAIN

Maialen, Imanol eta Iker

Beti gazt...Malkogariyak badatozzzzz berri! Parranderoak zuek!



ANDOAIN

Zorionak Aitor

Aitor... beti prest parrandarako! Zu gaztetu nahian baina badoaz urtek aurrera, gora zure irrifarra!



ANDOAIN

Iruñe Amondarain

Portillo Etxeko sorgin maiteari, dantza ta salto eginez beti pozik!



ANDOAIN

Jon Loiarde

Otsailaren 14an 12 urte beteko ditu Jon! Segi orain arte bezain jator. Asko maite zaitugu.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Otsailak 12, astelehena.

ANDOAIN

Andoaingo anbulatorioan hitzordu berria: 16:30etik 20:30era. Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua hartu behar da astelehen goizean bertan 943 00 78 84 telefono zenbakira deituz.



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

OTSAILAK
16-25 USURBIL

BIZKARSORO Pelikula emanaldia eta solosaldia
otsailak 16, **OSTIRALA**, 19:00 Suteqi

TAPIA ETA LETURIA Kontzertua
otsailak 17, **LARUNBATA**, 22:30 Aginagoko Elza Zaharean

ETXE BAT Poesia errezitaldi musikatua
otsailak 25, **IGANDEA**, 18:00 Suteqi

NOUA

ETXEBAT Binakako bakarriketa
otsailak 18, **IGANDEA**, 18:00 Suteqi

TOTO Antzerkia
otsailak 24, **LARUNBATA**, 19:00 Suteqi

Sarrerak: alde zurretik salgai. usurbikultura.eus plataforman eta NOUA/ko egoitzan.



Larramendi Bazkunaren egoitzatik abiatu zen, ohi bezala, Santa Ageda bezperako taldea. AIURRI

Santa Yageda gogoangarria!

Santa Agedako urteroko errondan, aurten, 120 lagundik gora ginen Zumea plazara iritsi ginenerako, Dr. Huiziko egoitza aurreko hitzordura iritsi ez zirenak banaka-banaka edo taldetan gehitu baitzitzaizkigun ibilbidean

Aiurri komunitatea

Larramendi Bazkuna / ANDOAIN

Kronika osoaren laburpena, jarraian: Joakin Larreta etorbidea osorik guretzat izan genuen eta hiru geldialdi egin genituen lasai askoan kantari aritzeko, Kale Berrian barrena baino askoz lasaiago. Agustin Leitzan azken kale-kolpea egin eta Larramendi joan gintzaizkion kantari, loreak zituela baliatuz kolore piska bat emanez gauari. Ane Iartzak argazkirako elkar-tu zituen Unai Azpiroz Josu Lekuona, Susana Cencillo musikariak eta Ramon Beraza zuzendaria. Haiei guztiei gure eskertza.

Ondoren, Elizondora jo genuen eta ohikoa dugun harrera egin ziguten. Bertan, elizondotarrentzat osaturiko koplak kantatu genituen, Zorion eta Otso beltzarenekin batera. Hor eman

zuten gehienek amaituta aurtengo saioa, 60 lagun izan ezik, zeinak ausartu baitziren Ontza elkartera jo eta bertan prestatu ziguten afari ederrea egiteko: Jabierren baratzuri-zopa bikaina, arraultza frijituak txorixo

egosiarekin, gazta eta irasagarra eta, azkenik, kafea edo infusioa kandida banarekin... Gure eskerrik egiazkoenak Ontzako taldeari egiten duten lan bikainagatik. Bere lana izaten dute gu gero bertatik kaleratzeko!



andoaINDARRA
euskaraz

Goiburun ere usadioari eutsi zioten



Kantuan aritu ziren, elkarrekin, hiru belaunaldi. AIURRI

Goiburuko abeslariak, igandean goizean goiz abiatu ziren kantuan, auzoko ermitatik abiatuta. Makilak eskuan hartuta, Santa Agedako ohitura berritzeko asmoa gauzatu zuten. Haurrak, gazteak eta helduak baserriz baserri aritu ziren. Geldialdiak egin zituzten hainbat etxeren eta baserriren atarietan. Haietako bi, Azpillagan edo Juanleitzanean egindako saioak, bideoan ikus daitezke Aiurri.eus webgunean.



Auzoko etxe eta baserrietara hurbildu ziren kantariak. AIURRI